

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)


EMUN
LANA, EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA



EHUREKA AHOLKUAK

31

ADITZAK





HAINBAT USTE USTEL ...

Leike eta gera oso aditz erabiliak izanda ere, zergatik ez dira agertzen gramatiketan?

Euskara batu zenean, aditz forma batzuk aukeratu ziren eta ez besteak. Dena den, gaztelaniaz ere zuzenak ez diren zenbait forma erabiltzen ditugu ahozkoan eta inor ez da horregatik kezkatzen: *si habría venido, aunque me gustara, ...*

Gainera, forma horiek ahozko euskarak duen aberastasuna erakusten digute, baita hortaz gozatzeko aukera eman ere (inor gutxik erabiltzen ditu horiek idatzizkoan).

ADITZAK
DIETE
GENEUKAN
ZATUZ
ZITZAIZKIGUN
ZION
GENEUKAN
DUT
DIZKIGU
ZATUZ
ZITZAIDAN
DUGU
ZAIT
DIETE
ZITZAIZKIDAN
ZITZAIDAN
DIZKIGU
ZITZAIZKIDAN



HAINBAT USTE USTEL ...

Ginderrazkion, zeniezazkidakeen... nola ikasiko ditugu, ba?

Ereduzko prosa gaur corpusean (euskarazko testurik onenak batzen ditu) bi aditz forma horiek ez dira agertzen. Egia da euskarak oso aditz luzeak dituela (batez ere, ahaleraukoak). Egia da ere euskarak badituela horiek ordeztzeko moduak: adibidez, esan diezazuket barik, esan ahal dizut erabil daiteke.

Edo subjuntibozko formak ordeztzeko –t(z)ea jartzea.





HAINBAT USTE USTEL ...

Ikasten dugunetik kanean erabiltzen denera, alde handiegia dago:
inbiou, geinke, dostezu.

Munduko hizkuntza guztietan daude dialektoak, lekuan lekuko hitz egiteko modu berezituak. Gurean ere bai.

Forma horiek guztiak dialektalak dira, leku jakin batean erabiltzen direnak.

Horrek ez du esan gura estandarreko formak ikasi behar ez ditugunik.

Estandarrekoak ikasi bai, baina baita leku bakoitzean erabiltzen diren forma bereziak zeintzuk diren ezagutu ere.





HAINBAT USTE USTEL ...

Elkar ikusiko dugu ikasi eta ikusiko gara entzun, ikusi zaitut ikasi eta ikusi dizut entzun.

Kontuan izan behar dugu euskara erabiltzen duten askok ez dutela euskara lehen hizkuntza. Forma horiek gaztelaniatik “mailegatuta” daude zuzenean. Ahozkoan malguago jokatu ahal dugu (egokitasuna helburu) idatzizkoan zorrotz zaindu behar ditugu horrelako akatsak.





HAINBAT USTE USTEL ...

Persegidu, inkrepau, sekuestrau, akutxilleu...
entzuten ditut. Halaxe idatzi behar ditut?

Ahozkoan *persegidu* eta abar erabili arren, idatzizkoan inork ez du honen moduko aditzik erabiltzen. *Jarraitu, iraindu, bahitu, sastakatu* eta abar dira erabiltzen direnak.

